

Hobeto esateko (II)

Kontuan hartuta tradizioa, beti-beti erabili izan da oraintsu-oraintsura arte, batetik, *hobeto* edo *hobeki* eta, bestetik, *esateko* edo *errateko*.

Mitxel Kaltzakorta Mentxaka

A rinagoko artikuluan ahalegi-
nak egin nebazan erakusten
esapide aztergaia (hobeto
esateko) lokailua dala honelako erabi-
leretan:

—Dimara noa, **hobeto esateko**,
Obara

eta beronen lehenengo osagaia
beti dala *hobeto* edo *hobeki*.

Gaurko artikuluan erakutsi gura
dot datu bidez tradizioan beti erabili
izan dala lehenengo osagaitzat *hobe-
to* edo *hobeki* eta bigarrentzat, *esate-
ko* edo *errateko*.

Hona hemen euskara batutik at aurkituri-
ko adibide batzuk (denak, inork ikusi gura
izanez gero, *Hizpide* aldizkarian dagoz, 45
zenbakiko artikulua baten, izena dabela *Hobe
esan* edo *Hobeto esan*). Adibideok hiru mul-
tzotan banatu dodaz: bizkaieraz idatzitako-
ak, gipuzkerazkoak eta beste euskalki ba-
tzuetaoak. Etsenplu guztiak dagoz orraz-
tuta irakurlearen ulergarri: bizkaierazkoak
gaurko bizkaiera batuan-edo eta enparauak
euskara batuan:

1. BIZKAIERAZKOAK:

—Baita da egia (...), joaten direan guztian
edo piestaruntz edo piestan edo piestea
amaituta, edo hobeto esateko, lehenengo-
tik azkenera luxuria guztiaren testigu izate-
ra doazana. (Fray Bartolome, 1768-1835)

—Neu geu legez sartu eta harik zortzi
egunera atunetan hasi ginean, edo hobeto
esateko hegalaburretan (R. M. Azkue, 1864-
1951)

—Astodunak ziren Tramana eta Brix, edo
hobeto esateko, asto jabeak (T. Agi-
rre, 1864-1920)

—Mutiko soster pilotxo bat agiri da, ho-
beto esateko, ezkutaten da berezi-barruko
ikeztot-zuloan. (*Kirikiño*, 1866-1929)

OKERRAK ZUZENTZEN

Noiz hasiko da pelikulea?

OKER

- * Bihar amaitzen da matrikuletako epea.
- * Noiz alkartzan gara mendira joateko?
- * Hamarretan hasten da pelikulea.

ARTEZ

- Bihar amaituko da matrikuletako epea.
- Noiz alkartuko gara mendira joateko?
- Hamarretan hasiko da pelikulea.

—Honakoak, egia, ez dau Jainkorik uka-
tzen; ez dau sentitzen Jainko preminarik;
hobeto esanda, ez dau kemenik Jainkoa
ezagutzeko, (A. Onaindia, 1909-1996)

—Munduko bigarren sail, baso-arlo han-
diena, *Oian ibilgabeak* edo, hobeto esateko,
gizonak oraindik menderatu ez dabezan ba-
sotza ikaragarriak osatzen dabe. (S. Munia-
tegi, 1912-1976)

—Ez eban aukerarik, hobeto esan, ez
eban behin bere, adorerik izan horretarako.
(E. Erkiaga, 1912-1993).

—Munduko herriak zaharrenetarik bat,
ideologia aldetik, jaio barria bezala jokat-
tzen, umezurtz bezala hobeto esateko. (J.
Arenaza).

2. GIPUZKERAZKOAK:

—(...) Denboraz argitara eman zuen haur
edo, hobeto esateko, bidutzi bat, hain itsu-
sia, non Erregek sinistu zuen ez zela berare-
na, (J.B. Agirre, 1742-1823).

—(...); bakarrik bera izan zait fin eta leial
beste guztiak kontra nituenean, edo hobeto
esateko, nigana alderatzeko bihotzik Golo-
ren beldurrez inork ez duenean. (G. Arrue, 1811-1890)

—Orain Naparroan gara. Hobeto esan,
aspaldi genbiltzan Naparroan barrena, mu-

gaz beste alderditik ere Naparroa
baita (*Lizardi* 1896-1933)

—Guk ere bagenduen lehengusu
bat han galdua; an itoa, hobeto esate-
teko. (*Uztapide* 1909-1983)

—Balkoia dauka benetako bitxia,
argitsua eta txukuna. Urdinez mar-
gotua; hobeto esateko, barandak ur-
din ta zutoiak berde; (*Bordari*, 1910-
1983)

—Errezilgo Arregik, jakin duda-
nez, min hartu zuen entrenaketa ba-
tean. Zauritu egin zen, hobeto esate-
ko. (*Basarri*, 1913-1999).

3. BESTELAKOAK:

—Urtarrilaren hogeita hamaikan, negu-
bihotzean, hotzik minenean, Estrées izana
zen herria, edo, hobeki, lehenago herri hura
izanak ziren harri-metak puzkatuak zituz-
ten Baionako gizonak. (J. Barbier, 1875-
1931).

—Lehen itsura ari ginen, ahal genuen be-
zala, edo hobeki erraiteko, nola nahi... (P.
Arradoy, 1910-1984).

—Euskal Herriak, hobeki Xuberoak, ba-
dauka bere pastoralekin, teatro bat osoki
gurea, (...) (P. Larzabal, 1915-1988).


Ikusirik adibideok, zehatzago esateko,
gorago aipaturiko *Hizpide* artikulukoak,
esan neinke:

1. Gure lokailu aztergaian lehenengo osa-
gaia hobeto edo hobeki dala (adibide guz-
tiak: 37) eta inoiz be ez hobe. Bestalde, ipa-
rraldeko adibideetan birritan agertuten da
hobeki hutsa.

2. Lokailuaren bigarren osagaian, esate-
ko erabilten dala gehien alde handiagaz
(37etatik 31tan); oster, esanda eta esa-
nez banatan, eta esan birritan. Beraz, ez
dago zalantza tantarik esateko dala bidez-
koena.

Hurrengoan gehiago

LUIS PRIETO FUTBOL JOKALARIA



«Maiatzean esango deustie Athleticera joango nazen»

Izaskun Basterretxea

Luis Prieto futbol jokalariaik
urte bi daroaz Eibarren jokatzen, atzetik, eta ondo, ederto dabil. «Gustura-gustura» dabilela aitortu deutso berak *Bizkaia*-ri. Lehenengo maila-
ra igongo dauen zurrumurrua be zabaldu da, Athleticera. Horrek, jakina, asko poztuko leuke. Seguruenik maiatzean esango deustie.

Durangoan jaio zan, orain dala 23 urte, baina 13 bat urte-
gaz Dimara joan zan bizi-
ten eta Arratiako taldean jo-
katzen, eta hango euskera egiten dau.

■ **Datorren denporaldian Athleticen jokatu dozun zurrumurrua zabaldu da.**

Bai? Gogoia bai, gogoia itzela, baina ia zer esaten deustien. Ni, Athleticetik itxita nabil Eibarren jokatzen, eta Athleticen lotuta beste urtebete gertatzen jatanez, aurten esango deustie zer egin gura daben neugaz. Maiatzean edo, esango deustie.

■ **Noz hasi zinan futboleko jokatzen?**

Eskolan hasi nintzan. 10 bat urte-
gaz futbitoan jokatzen neban, eta 14 bat urte-
gaz Arratiara etorri nintzan, eta gero Athleticetik hartu ninduan, eta Athleticetik itxita Baskonian, Barakaldon, Bilbao Athleticen be jokatu neban urtebetez, eta azkenengo urte biok Eibarren.

■ **Eibar taldean euskeraz dakien beste inor badau?**

Bai, hainbat: Bakero, Sukia, Jon Kortina, Fagoaga... Badagoz, bai, beste pareren bat be.

■ **Zuen artean euskeraz egiteko ohiturarik badaukazue?**

Bai, gure artean, entrenetan eta gabilzanean, euskeraz egiten dogu.

IRAKURBIDEAK

Arduraduna ■ Alvaro Rabelli

Bakioko txakoli baltza

- Orrenbeste zarata horma baten txakoli-
ña saltzen dala idatzi dabelako?

- Bai, onenbeste zarata. Orrelakoxe
idazkuntxu bat euskeraz iminiak, askok
uste daben baiño gehiago esan gura dau,
euskereari aurrerantz eragiteko.

Len esan dogun lez gure ele edo berbe-
ta au, gure Aberriaz batera bizi edo ilgo
dan nau, orain arte bazterretan, etxe
barruetan sartuta inora urteteko adore
barik aurkitzen izan da, lotsa-lotsa, berta-
koa, etxekoa, Aberrikoa ta Aberriarena
izan ez balitz lez.

Iñun ez eben artu gura, iñun ez eben
ezagutu gura, at eskoletatik, at erri lando-
letatik, at aberatsen etxeetatik, at eleiza
askotatik, at alde guztietatik. Gauza osti-
kopetuagorik! Eta euskereaz batera geu
ostikopetua, Aberria erdi illik.

Geure buruak ezagutzen asi gara ta
geure Aberria maitatzen, eta era batera
geure gauza guztiak, geure-geureak,
lurretik, saskara artetik, botata egon
diran lekutik jasotzen, garbitzen ta apain-
tzen; eta euren artean aurrenengo gure
euskera maitea, geure gauzarik ederrena.

Berau, dagokion tokian jartzeko esaten
daskue eskolak bear dirala, baiña nun
jagozak eskolak? Eskola orek eukiko
doguzan arte egon bear al dogu besoak
eunduta ta arkoloka jesarrita, ezertxo be
egin barik, arrausi baten?

Al doguna egin. Geure umeak euskeraz
ugutzau. Geure etxeai euskeraz izena
imini. Geure dendetako ate-buru ta
ormetan euskeraz egin idazkunak. Geure
adiskideei euskeraz idazkiak egin. Geure
iragarkiak euskeraz argitu izparringietan.

Geure etxean ta kalean eta alde guztietan
euskaldunaz euskeraz itz egin.

Geure otoiak euskeraz egin. Geure
edozein gauzatan ez ezetsi euskerea,
maitatu eta onetsi baiño. Onakoxe egiku-
nakaz ataraten dogu geure euskerea erdi-
ra, aizetara, eguzkitara, sendotu ta azkar-
tu daiten.

Ume bat euskeraz ugatzau dala, etxe
bati euskeraz izena imini jakola, orma
baten euskerazko idazkuna egin dala...
ori da euskereari gora eragitea.

Orregaitik euskaltzaleak poztu orrela-
ko bat jakinaz.

1913-X-23

'Edo geuk edo inok ez Euskerearen alde' liburutik jasoa.

Egilea: Kirikiño.

Argitaletxea: Labayru Ikastegia.